

## Recensiones

**Orreaga Ibarra, *Ultzamako Hizkera. Inguruko Euskalkietako Harremanak*, Iruña, 1995.**

Karrikara Caja Rural de Navarra-ren eta Nafarroako Gobernuaren diru laguntzaz atera ahal izan den liburu eder hau zortzi atal nagusitan banaturik dago. Lehenik sarrera dugu, non ikerketaren itoztat hartu diren bailaren ezaugarri batzuk –geografikoak, demografikoak, soziolinguistikoak– azaltzen diren, egileak “ultzamera” deitzen duenak beste hizkeren artean duen estatusa azaldu eta alderdi metodologikoak argitzeaz gainera.

Bigarren atalean dialektologiak erabiltzen dituen hainbat kontzeptuz mintzo zaigu Mezkirizko irakaslea; hirugarrenean ultzameraren bokalismoa ukitzen du, eta laugarrenean kontsonantis-moa. Bosgarren atalean morfologia –izen sintagma, deklinabidea, aditza– eta joskera –perpaua mota diferenteak– aztertzen ditu, eta seigarrenean silabaz eta euskal dialektologoei hainbeste buruhauste eman dizkien azentuaz dihardu.

Zortzigarren atalean ultzamera ikuspuntu sozialetik deskribatzen du, eta azken atalean hiztegia biltzen, guztiz interesgarriak diren laburpen-ondorioetara igaro aitzinetik. Esan dezagun tartekaturik testua errazago ulertzen laguntzen duten hainbat mapa argi azaltzen zaizkigula, begien gozagarri.

Lan hau garrantzi handikoa del uste dugu, ultzamera atzerak dabilen hizkera delako lehenik, bildu behar handia zuena. Bestalde, alderdi honetako umek eskolan ikasten duten euskara ez da, gehienetan, gurasoek edo aiton-amonek etxean egiten dutena edo zutena, batua baizik, eta beraz, eta tamalez, ez dirudi ultzamerak etorkizun itxaropentsuegia duenik, Orreaga Ibarrek berak dioen bezala.

Lana inportantea da, orobat, egileak goi-nafarrerarako egiten duen sailkapen-proposamen berriagatik: haren ustez, eta Bonapartek zioenaren kontra, hegoaldekoa/iparraldekoa bereizi baino egokiagoa da, askoz, ekialdekoa/mendebaldekoa bereiztea, liburuan barrena ematen dituen azalpenetan eta datu linguistikoetan oinarri-

turik. Honen arabera, Ultzama, Atetz eta Anueko euskara Ezkabarte, Odieta eta Esteribarkoarekin hobeki sailkatzen da mendebaldeko euskaratik hurbilago dagoen Basaburu Nagusikoarekin baino. Haran honetako ekialdeko herriak, eta Imozko gehienek, transizio eremua osatzen dute, ikertzaile erroibartarraren iritzian.

PATXI SALABERRI